Elkarikasnet Euskara, literatura, artea eta kultura
Internet bidez ikasten

Fitxa teknikoa

- Interneterako prestatutako ikasmateriala da.
- Netscape 3.11 edota Explorer 4.00rako prestatua.
- Testuak HTML formatuan daude. Baina, horrez gain, RTF formatuan edota PDF formatuan ere eskainiko dira. Programak, berriz, Interneten zuzenean erabiltzeko prestatuta daude.

Ezaugarriak

- Elkar argitaletxeak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat sortu eta diseinatu duen materiala da *Elkarikasnet (Euskara, literatura, artea eta kultura)*.
- Hamabost objektuz edo itemez osatuta dago.
- Euskara irakasteko edo ikasteko edo euskaraz irakasteko edo ikasteko Internet bidezko multimedia programa labur, argi eta didaktikoak dira.
- Material hauek oinarrizko euskal curriculumeko eduki zehatzak lantzeko diseinatuta daude, eta, ikaslearen oinarrizko ikasliburuetako edukiak lantzen laguntzeko, marrazkiz, argazkiz, animazioz, bideoz, testuz, audioz, mapaz, infogramaz… osatutako multimedia programak dira.
- Eskola barruan nahiz eskolaz kanpo erabiltzeko moduko materiala da, taldean nahiz bakarka.

Erabilera

Internet bidezko multimedia programa bakoitzak eskola barruko hainbat unitateren pareko lanketa egiteko aukera eskaintzen du; horretarako, aurrez programatu beharko da (adinaren eta beharraren arabera) zer eman eta nola, zailtasun-mailaren araberako jardunaldiak prestatzeko aukera ematen baitu. Hala eta guztiz, ez da eskolan soilik erabiltzeko egindako materiala, eskolatik kanpo ere erabil daiteke, familian, lagunartean…

Oinarrizko curriculum-diseinuarekin dituen harremanak

Curriculum-materialak sortzeko garaian kontuan hartu beharreko hainbat helburutan oinarrituta dago *Elkarikasnet (Euskara, literatura, artea eta kultura)* Internet bidezko programa hau:

1/ Oinarrizko Hezkuntzako curriculumeko oinarrizko gaitasun hauekin dago

erlazionatuta:
a) Ikasten ikasteko gaitasunarekin.
b) Hizkuntza-komunikaziorako gaitasunarekin.
c) Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasunarekin.
d) Gizarterako eta herritartasunerako gaitasunarekin.
e) Giza eta arte-kulturarako gaitasunarekin.
f) Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasunarekin.

2/ Oinarrizko Hezkuntzako curriculumeko oinarrizko gaitasun hauek lantzea dute xede:

a) *Arduraz bizitzen ikastea*: giza gorputza eta sexualitatea, gorputza zaindu eta osasuntsu mantendu; ingurune naturala balioetsi eta hura arduraz gozatu; ekosistema osasungarriari eusteko ardura.
b) *Ikasten eta pentsatzen ikastea*: modu koherentean eta kritikoan; zientziaren eta teknologiaren garapena, aplikazioak eta haiek ingurune fisikoan eta sozialean zer eragin duten jakitea eta balioestea.
c) *Komunikatzen ikastea*:
   - Zuzen, egoki, autonomiaz eta sormenez ulertzea eta adieraztea euskarazko mezuak, eta horiek erabiltzea komunikatzeko, norberaren pentsamenduak antolatzeko, errealitatea interpretatzeko eta hitz egiteko bete behar diren prozesuei buruzko gogoeta egiteko. Literatura irakurtzeari, lantzeari eta aztertzeari ekitea.
   - Ikaslearen bizi-inguruneko errealitate soziolinguistikoa ikuspegi kritikoz interpretatzea, eta hizkuntzak sortzeko eta garatzeko eta hizkuntzen arteko harremanak finkatzeko faktoreak zein diren jakitea. Hizkuntzen aniztasuna errespetatzea eta aniztasun hori herrien eta gizabanakoen aberastasun eta eskubidetzat hartzea, interesa eta errespetuzko jarrerak izateko eskubide horren erabilerarekiko eta hizkuntza-normalizazioko prozesuekiko.
   - Informazioko teknologiak eta komunikabideak erabiltzea ikasteko eta jakintza berriak eskuratzeko prozesuan, betiere, hartutako eta sortutako mezuekiko ikuspegi kritikoa izanda.
   - Arte-sorkuntza ulertzea, ezagutzea eta balioestea; arte-hizkuntzaren mezu zuzenak eta iradokitakoak identifikatzea eta ikuspegi kritikoz aztertzea; eta artea dierazpenez eta -obrez gozatzeko ahalmena, sentikortasun estetikoa eta sormena garatzea, eta arte-hizkuntzak erabiltzea gauzak adierazteko eta komunikatzeko. Hitzezko hizkuntza eta arte-, matematika- eta zientzia-hizkuntzak interpretatzea eta modu aktiboan eta kritikoan erabiltzea, komunikazio-ekintza zehatzak egiteko, azalpenak eta arrazoiak emateko, eta norberaren, gizartearen eta izadiaren errealitatea egoki irudikatzeko.
d) *Elkarrekin bizitzen ikastea*: talde-jarduerak planifikatzen eta egiten laguntzea, eta, berariaz, bizikidetza-arauak eta demokratikoki ezartzen diren gainerako arauak ezagutzea eta betetzea; auziak prebenitzeko eta haiek modu baketsuan konpontzeko trebetasunak eskuratzea; ikasleak arduraz onartzea bere betebeharrak eta zer eskubide dituen jakitea eta horiek erabiltzea, gainerako pertsonak errespetatuz; gizarteko arauak eta ohiturak betetzea pertsonekin harremanak izatean eta gizarte-jardueretan parte hartzean; sexuen arteko diferentziak eta pertsona guztien arteko eskubide- eta aukera-berdintasuna balioestea eta errespetatzea, eta, horrekin batera, gizonak nahiz

emakumeak diskriminatzea eragin dezaketen estereotipoak baztertzea; Euskal herritartzat izatea norberaren burua, kultura askotariko ingurunean, eta balioa ematea euskal hizkuntza eta kulturari edota norberak berezko eta erreferentziazko dituenei; hala, ikasleak, identitate anizkunei erreparatuta, nortasun propio bat eraiki behar du, modu inklusiboan; Euskal Herriko kulturaren eta historiaren oinarrizko alderdiak eta arte- eta kultura-ondarea ezagutzea, balioestea eta errespetatzea, eta xede horiek betetzea gainerako kultura eta gizarteekiko.

e) *Ikaslearen giza alderdiak garatzen ikastea*: bizi-ibilbidea gainerako pertsonekin batera autonomoki bizitzea eta kritiko eta arduratsua izatea; autoestimua eta gaitasun emozionalak lantzea; ikasleak modu egokian ikustea bere burua eta bere ezaugarriak eta aukerak, jarduerak autonomiaz eta orekaz egitea, eta balioa ematea helburuak lortzeko esfortzuari eta zailtasunak gainditzen joateari.

f) *Egiten eta ekiten ikastea*: izaera ekintzailea garatzea; norberaren jarrerak identifikatzea eta ikasteko nahiz lan egiteko aukeren alderdi onak eta txarrak balioestea.

Helburuak

Objektu edo item digital hauen helburua euskara, euskal literatura eta oro har euskal kulturarekin lotura duten jakintzak ikasteko eta irakasteko lagungarri izatea da. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara bideratuta daude batik bat, hortik aurrera ere baliagarriak izan badaitezke ere.

Ikasgai hauen bidez, ikasleek euskal kulturako, eta horren bidez, kultura unibertsaleko oinarrizko elementuak eskura ditzaten nahi da, horiekiko interesa eta sentsibilizazioa sortaraztea.

Arlo bat baino gehiago lantzen dute objektu hauek, guztiak Euskal Herriko hizkuntzarekin eta kultura-ondarearekin lotuak, hortaz, arlo horien guztien helburuei erantzuten diete:

- Literatura (ahozkoa eta idatzizkoa)
- Euskara (euskararen jatorria, euskara batua, euskalkiak)
- Artea (margogintza, eskultura)
- Etnografia (euskal mitologia, sinesmenak)

Beraz, objektu hauen helburua Euskal Curriculumean aipatzen diren hainbat gaitasun eta konpetentzia lortzen laguntzea da. Honako hauek dira objektu hauen irabileraren bidez ikasleak eskuratzea nahi ditugun gaitasunak:

1. Hizkuntza erabiltzeko era askotako eremuetatik jasotako diskurtso idatziak eta ahozkoak ulertzea eta ikuspegi kritikoz interpretatzea.
2. Soziolinguistikako oinarrizko ezagutzak kontuan hartuz, eleaniztasunaren eta kultura-aniztasunaren dibertsitatea ezagutzea eta interpretatzea.
3. Erlazioan dauden hizkuntzen sistemei buruz hausnartzea, horietako bakoitza behar bezala, koherentziaz eta zuzen erabiltzeko eta transferentzia negatiboak saihesteko.

4. Literatura-generoen oinarrizko arauei eta horien bilakaera historikoaren oinarrizko etapei eta obrei buruzko ezagutza erabiltzea, literatura-testuen eta literatura-asmoko testuen ulermena eta produkzioa bultzatzeko.
5. Literatura-ondarea balioestea norbanakoak eta taldeak historiako eta kulturako hainbat testuingurutan izandako esperientzia sinbolizatzeko.
6. Ereduzko testuak eta norberak hautatutako testuak irakurriz eta ikus-entzunezko beste eremu batzuk ere kontuan hartuz, literatura-obrez gozatzea, norberaren esperientziari zentzua emateko, mundua eta giza egoera ulertzeko eta sentiberatasun estetikoa garatzeko.
7. Euskal Herriko arte-adierazpen garrantzitsuenak ezagutzea eta balioestea, arte-garapenari kultura guztiek egindako ekarpenak aintzat hartzeko eta balioesteko; eta, orobat, nork bere kulturako eta beste kulturetako arte- eta kultura-ondarea balioesteko eta errespetatzeko, bere burua eta taldea aberasteko baliabidetzat hartuta.
8. Euskal Herriko sinesmenak, mitoak eta tradiziozko pentsamendu kolektiboak ezagutzea eta balioestea, hainbat kultura- eta ohitura-adierazpen garrantzitsutan islatzen direnak.

Ikasgaiak

1. Pastorala
2. Bat-bateko bertsolaritza
3. Euskal kantagintza
4. Euskal literatura XVI. mendean
5. Euskal literatura XVII. mendean
6. Euskal literatura XVIII. mendean
7. Euskal literatura XIX. mendean: euskal literaturaren pizkundea
8. XX. mendeko euskal literatura. 36ko Gerra aurreko prosa
9. Xabier Lizardi
10. Gabriel Aresti
11. Poesia XX. mendean: heterodoxoen aldia*
12. Poesia garaikidea
13. Ipuin modernoaren sorrera*
14. Nobela modernoaren sorrera*
15. Emakumeak euskal literaturan
16. Haur eta gazte literatura
17. Ilustrazioa euskal literaturan
18. Euskal antzerkia*
19. Euskal kazetaritzaren hastapenak*
20. Euskal mitologia
21. Euskararen jatorria
22. Euskara batua

23. Euskalkiak
24. Euskal artea: XX. mendeko margolariak
25. Euskal artea: XX mendeko eskultoreak

OHARRA:
Literatura gaiko zenbait objektutan ageri diren testu originaletan, oro har, jatorrizko idazlanaren idazkera errespetatu da (* ikurra daramatenak dira). Dena dela, ortografia-arloko zenbait gaurkotze egin dira. Horrela, garaian garaiko idazmoldeen eta euskalkien ezaugarrien berri izango du hartzaileak.

Metodologia-alderdiak

- Objektu edo item bakoitza minutu gutxikoa izanik, edozein unetan (lantzen ari den eduki horrekin zerikusia baduela iritziz gero) jo dezake ikasleak (bere kasa zein hezitzaileak hala aginduta) Internet bidezko programa jakin horretara.
- Erabiltzailea nahi beste aldiz balia daiteke programa horiez, ematen ari den gaia hobeto ulertzeko eta jasotzeko helburuarekin.
- Nahi izanez gero, programa horretako edozein elementu jaits dezake bere karpetara edota inprimatu nahi izanez gero inprimatu ere bai, esku artean izan ditzan eta norberak osa dezan nahi dituen oharrak ipinita.
- Komenigarria litzateke objektu edo item bakoitzeko testuetako edota audioetako edukiren bat erabiltzaileari ulergaitza balitzaio, beharrezkoa den kontsultategian begiratu eta argitzea, aurrera jarraitu baino lehen.

Proiektuko lantaldea

Egileak, 1.-8., 15., 20.-25. objektuetan: Elkarreko taldea
Egilea, 9.-14., 16.-19. objektuetan: Koldo Izagirre
Editoreak: Elkarreko taldea
Programatzaileak: Eragin
Audio- eta animazio-teknikariak: Eragin
Koordinatzaile orokorra: Elkar